

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Asensio Artetxe Barrenetxea Saka

*Deba,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Arriola auzoko Perla baserrian jaio zen 1930ean. Bederatzi anai-arreba ziren. Umetan Maria "Azpeitti"-ren eskolan ibili zen Asensio, baina sarritan ezin izaten zen eskolara joan, etxean lan egin beharra zuelako. Geroago Begoña Andonegi irakaslea euren etxean egon zen apopilo, eta orduan ikasi omen zuen ikasitako apurra. Ama Elgoibarko Borrajen baserrikoa zuen Asensio. Aita Perlan bertan jaioa zen, baina aitaren aldeko aitona Sakabi baseritik etorria zen eta hortik datorkie "Saka" goitizena. Goitzenarekin batera aitona ekarri zuten zezenekiko zaletasuna ere. Aitak lan handia egin zuen zezenak ekarri eta arraza hobetzen eta Euskal Herri osora eramaten zituzten zezenak, bai zezenketetara, bai enbolatuta edo baita entzierroetara ere. "Marqués de Saka" izenarekin ezagutzen zen aita. Berak ere aitaren lanari eutsi zion eta 240 abelburu izatera iritsi zen; baita zezenak 16 herritan batera botatzera ere. Emaztea elgoibartarra du.

Zintak

DEB-038

- **Proiektua:** Debako ondarearen transmisioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Zinkunegi, Amaia
- **Data:** 2011-06-08
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Aitita Sakabi baseritik Perlakuara

- **Erref:** DEB-038/002
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:03:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitita Sakabi baseritik Perlakua baserrira etorri zen bizitzera. Esaten omen da hark arriean ekarri zituela zezenak Perlakura. Gaur egun Perlakua "Saka" izenez ere ezagutzen da, baina izen hori bere aitonagatik dauka. Bere aitari "Marqués de Saka" deitzen zioten. Beti izan dute ganadu ona eta horrek bezeroak ekarri dizkie.

2. Hegazkinak hirunaka Gernikarantz

- **Erref:** DEB-038/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Berak 7 urte inguru zituela, hegazkinak ikusi zituzten hirunaka, Gernika alderantz. Inguruetako baserrietan ere tropak zeuden. Barkuak etorri eta Deba bonbardatu zuten, baina ez zuten asko apurtu. Gorriek orduan ihes egin zuten.

3. Gerra ostean zezenen eskaera ugaritu

- **Erref:** DEB-038/004
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

Gerra ostean zezenen ikuskizunak ugaritu egin ziren: uztailaren 18an edo irailaren 23an (erreketeak sartu ziren eguna) zezenak botatzen baitzituzten. Donostian bizi zen gizon batek (Castro) plazak prestatzen zituen eta bazen "txarlot" bat ere, zezenekin ikuskizunak egiten zituena. Pixkanaka ugaritzen joan ziren zezenak.

4. Kanpotik ganadua ekarri eta festak bukatzean inguruko baserrietara saldu

- **Erref:** DEB-038/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

9 anai-arreba ziren. Umetatik lan egin behar izaten zen baserrian. Hala ere, goserik ez zuten pasatzen. Umetatik hasi ziren zezenekin ere. Aitak inguru guztietan zezenak erosten zituen. Castrok kanpotik ekartzen zituen zezenak oso merke eta herriko festak bukatutakoan inguruko baserrietara saltzen zituen ia dohainik. Berak uste du "Betizu" arraza (bertakoa) ez dela existitzen, kanpoko ganaduaren ondorengoa delako inguruetakoa.

5. Alfarotik zezenak oinez Debara

- **Erref:** DEB-038/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

Zezenketarako zezenak Alfarotik ekartzen zituzten oinez Debaraino eta inguruetako sagasti batzuetan edukitzen zituzten 15 egunean. Aitak susara zeuden behiak hara eramaten zituen hango ganadurekin gurutzatzeko eta handik idisko onak irteten ziren. Arraza oneko ganadu gorriak izaten ziren orduan ekartzen zituztenak.

6. Azpeitira eta Tolosara oinez zezenekin

- **Erref:** DEB-038/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

<p>Garai batean Azpeitira eta Tolosara oinez joaten ziren zezenekin. Tolosara Bidanitik zehar joaten ziren. Ganaduzale guztiek joan nahi izaten zuten eta gastu handia izaten zen. Pixkanaka aitak lortu zuen bera bakarrik geratzea. Hiru egunerako ganadu mordoxka eraman behar izaten zuen.</p>

7. "Marqués de Saka"

- **Erref:** DEB-038/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aita parrandazalea zen, baina lanean fina. Diru asko gastatzen zuen, baina baita irabazi ere. Asto txiki batekin jaisten zen kalera eta haren gainean ibiltzen zen Debako kaleetan.

8. Gari eta arto asko egiten zen

- **Erref:** DEB-038/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Gari eta arto asko egiten zen garai batean. Auzolanean lan egiten zen. Arto-bizarrak zigarro modura erabiltzen zituzten gaztetan.

9. San Juan egunean Santa Katalina ermitara

- **Erref:** DEB-038/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Mendiko erromerietara joaten ziren lehen, baina gaur egun galdu egin dira. San Juanetan Santa Katalina ermitara igotzen ziren. Jende asko joaten zen eta trikitilaria ere egoten zen bertan.

10. Erromeria handiak Deban

- **Erref:** DEB-038/015
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Arbil auzoan Asentzioetan egiten zen erromeria. 3 korro egoten ziren dantzan eta lehia egoten zen, izan ere kobratu egiten zieten mutilei dantza egitearren, soinu-jolearentzat dirua batzeko. Deban ere erromeria handia egoten zen kiosko inguruan. Kanpotarren neskameak eta "Femeninak" ere hara joaten ziren dantzara eta bertako mutilak haien atzetik ibiltzen ziren.

11. Kalera jaitsitakoan abarkak kendu eta zapatak jantzi

- **Erref:** DEB-038/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Neska-laguntzeak egiten zituzten gaztetan. Ilunpetan joaten ziren 3-4 neskari etxera laguntzera. Kalera oinez jaisten ziren eta Kale Zaharrean abarkak kendu eta zapatak janzten zituzten. Milarraiazko prakak erabiltzen zituzten orduan. Zezenekin lan asko egin behar izaten zuten, baina baseritik baino diru gehiago irabazten zen.

12. Ganadutegia "legeztatu" zuen

- **Erref:** DEB-038/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:25:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bere aitaren ganadutegia ez zen legezkoa, Madrilgo baimena behar izaten baitzen zenbait lekutara joateko. Berak lortu zuen baimena eta baimen horrekin Espainia osoan ibiltzeko baimena zuen. 16 herritan batera zezenak botatzera iritsita omen dago. Herri eta hiri ugaritan ibili izan da.

13. Baba kamioikada Rincón de Soto-tik

- **Erref:** DEB-038/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lehen ganaduarentzat pentsua etxean egiten zen. Berak zezenentzat baba beltza kamioikada Rincón de Soto-tik ekartzen zuen.

14. Lesakatik bi txerri ekartzen zituen urtero

- **Erref:** DEB-038/021
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:31:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Etxean zezenez gain, behi batzuk eta bestelako abere batzuk ere edukitzen zituzten. Lesakara joaten zenean San Ferminetan 2 txerri handi erosten zituen beti. Txerriak etxean hiltzen ziren eta txorizoak egiten zituzten. Zezena ere urtero hiltzen zuten. Lehen auzolanean egiten zen lan asko, baina giro hori galdu egin da.

15. Gari-jotzearen inguruko kontuak; auzolana

- **Erref:** DEB-038/022

- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Bideak konpontzea auzolanean egiten zen. Udalak ardoa jartzen zuen eta bakoitzak jatekoa eramanda, merienda egiten zuten. Gari-jotzea ere auzolanean egiten zen. San Rokeak eta San Nikolasak bitartetan egiten zen. Goizean baserri baten lan egin, bertan bazkaldu eta arratsaldean beste leku batera. Garia jotzeko makina eta matxaka erabiltzen ziren eta baserri bakoitzak ordaindu egin behar izaten zuen makina erabiltzearen.

16. Barazkiak eta esnea saltzera kalera

- **Erref:** DEB-038/023
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Garia, artoa, patata, aza... hartzen zituzten etxean. Barazkiak eta esnea saltzera kalera jaisten ziren egunero. Bezeroak izaten zituzten kalean.

17. Jaunartzea egitearen truk oilasko pareta apaizari

- **Erref:** DEB-038/025
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:38:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

Perla baserría Arriola auzoan dago. Mutikotan Txomin "Haundi" eta Maria "Azpeiti"rekin ibili zen eskolan Deban. Askotan baserrian lana zegoenean ez ziren eskolara joaten. 12 urterekin komunioa egiteko traje berria egiten zen. Dotrina ikastera Itziarrera joaten ziren. Hango apaizak "kalabaza" eman ziela eta, parrokoarengana joan ziren eta hark onespena emanda egin zuten komunioa. Jaunartze ostean oilasko pareta eraman zioten apaizari.

18. Begoña Andonegi irakaslea euren baserrian

- **Erref:** DEB-038/026
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:38:24. **Bukatu:** 00:40:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Begoña Andonegi irakaslea euren baserrian egon zen denbora batez eta orduantxe ikasi omen zuen eskola pixka bat. Umetan anai-arreba guztiak etortzen ziren kalera eskolara. Anaia batek apaiz ikasketak egin zituen Donostian, baina gazterik hil zen.

19. 240 abelbururi jaten eman behar

- **Erref:** DEB-038/029
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

"Kirrikiri" arrazako zezenak izan zituzten beraiek. Tuteratik erosi omen zuen hazitarako ganadu ona. Lehen ere albaitaria bazen. Txerria etxean hiltzen zen inongo baimenik gabe, baina solomoa albaitariari eman behar izaten zitzaion. Zezenen gaixotasunak sarri ur zikina edatetik omen datoz. 240 abelburu izatera iritsi zen. Ganaduantzat belar bila ibiltzen zen kamioiarekin. Gaur egun ganadua gutxitu egin da eta belarra merkatu.

20. 62 urterekin atera zuen gidatzeko baimena

- **Erref:** DEB-038/030
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:47:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:

62 urterekin gidatzeko baimena atera zuen eta kamioia erosi zuen. Denek esaten zioten ez zuela gidabaimenik aterako, eskolarik ez zuelako, baina atera zuen. Ondo etorri omen zitzaion seinaleak ondo ikastea, hiri handietara joan zenerako.

21. Ganaduantzat jateko bila

- **Erref:** DEB-038/031
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:47:52. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

240 abelburuk jateko asko behar izaten zuten eta belar bila ibiltzen zen, inguruetan nahikoa ez zegoelako. Ganadua etxe inguruetan edukitzen zuen.

22. Txahalen inguruko azalpenak; jaiotza, gaixotasunak

- **Erref:** DEB-038/033
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Idiskoa uztail inguruan botatzen zioten behiari, txahalak udaberrian jaiotzeko. Udaberrian behiak esne gehiago ematen omen dio txahalari. Batzuetan esne asko edaten zutenean txahalek zizareak izaten zituzten, batzuetan itotzeraino. Gaur egun badaude horretarako botikak.

23. Ganadu onena Nafarroatik

- **Erref:** DEB-038/034
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:52:45. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

Beste ganadutegi batzuetara joaten zen bera ganadua erostera, baina ez da feria zalea izan. Salamancatik ganadu asko ekarri izan du eta baita Cacerestik ere. Ganadu onena, Nafarroatik ekarri omen du, hala ere, "Kirrikiri" arrazakoa.

24. Etxean sagardo ugari egiten zuten

- **Erref:** DEB-038/036
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Etxean sagardo asko egiten zuten, Arriola auzoan sagar asko baitzen. 800 litroko ontzi asko egiten omen zituzten. Dolarea ere ona zuten etxean, tina handikoa. Sagar klase askorekin egiten zuten sagardoa. Urrian egiten zen sagardoa eta Gabonak inguruan botilaratu.

25. Fruta-arbolen txertatzeak

- **Erref:** DEB-038/037
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Beste fruta-arbola batzuk ere bazituzten etxean: gereziak, aran klaudiak... eta txertatu egiten zituzten. Gerezi ugari hartzen zuten etxean eta arrebak "Femeninei" saltzen zien. Intxaurrak eta gaztainak ere asko hartzen ziren inguruetan. Txertatzeak nola egiten ziren.

26. Meriendatan atuna tomatearekin eta gazta

- **Erref:** DEB-038/038
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Baratzean tomateak ere izaten zituzten. Postrean sagar erreak jaten zituzten. Lehen denek ontzi batetik jaten zuten, erdian jarrita. Baba gorria edo aza jaten zen sarritan. Beraien etxean haragia beti egoten zen zezenak etxean hiltzen zituzten eta. Jaietan garbantzua jaten zen. Meriendatan sarri atuna tomatearekin eta gazta jaten zuten.

27. Lehenengo artoak sukaldean lehortzen

- **Erref:** DEB-038/040
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:01:50. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Afaltzeko berakatz-zopa edo taloa eta esnea jaten zen. Berak 9-10 talo jaten omen zituen. Euren auzoan arto gorria egiten omen zen. Artoa Lasturrera eramaten zuten errotara eta han arto horiaren irina ematen zieten bueltan. Urrian lehenengo artoak heltzen zirenean, sukaldean jartzen zituzten zintzilik lehortzen, ahalik azkarren errotara eramateko, taloa eta esnea jateko. Inguruetakoko errotak.

28. Ferratokia etxean; zezenen markak

- **Erref:** DEB-038/042
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:04:52. **Bukatu:** 01:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganadua ferratu egiten zuten eta ferratokia etxean jarri zuten. Ganadua nola ferratzen zen. Ferratzailea Itziartik etortzen zen ganadua ferratzera. Ferrak erosi egiten zituzten, baina ganadu bakoitzari bere moldea hartzen zitzaion.

Zezenak markatu ere egiten zituzten. Alde batetik, jabetza adierazten zuen marka eta, bestetik, zenbakia.

Artetxe Barrenetxea, Asensio | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com